

donostiakultura.com

UDAZKENA OTOÑO 2016



VICTORIA EUGENIA


Antzokia



Donostia Udaia
Ayuntamiento de San Sebastián



DSS2016.EU



ELKARRIZKETAK
CONVERSACIONES
DSS2016.EU

IKUR HAU DARAMATEN EKITALDI
GUZTIAK **DONOSTIA KULTURAK**
DONOSTIA 2016 EUROPAKO
KULTUR HIRIBUAREKIN
ELKARLANEAN ANTOLATU DITU
ETA **DSS2016**REN PROGRAMAREN
PARTE DIRA.

TODOS LOS EVENTOS SEÑALADOS
CON ESTE LOGOTIPO HAN SIDO
ORGANIZADOS POR **DONOSTIA
KULTURA** Y SAN SEBASTIÁN 2016
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
Y SON PARTE DEL PROGRAMA
DE **DSS2016**.

WWW.DONOSTIAKULTURA.EUS
WWW.DSS2016.EU



donostiakultura.com

PROGRAMAZIOA PROGRAMACIÓN UDAZKENA OTOÑO 2016

Babeslea
Patrocinador:



Urria Octubre

 Pág. 10 Orr.

Urria 06, 09 Octubre

DON PASQUALE

OPUS LÍRICA

 Pág. 44 Orr.

Urria 10 Octubre

LUIS FERNÁNDEZ

KLARINETEA

CARLOS APELLÁNIZ

PIANOA

MUSIKAGILEAK

 Pág. 46 Orr.

Urria 12 Octubre

LA LLAMADA

ISMAEL SERRANO

 Pág. 30 Orr.

Urria 15 - 16 Octubre

DANCE ON: THOSE SPECKS

OF DUST & 7 DIALOGUES

JONE SAN MARTIN

 Pág. 48 Orr.

Urria 17 Octubre

PIERROT REWRITE

MUSIQUES NOUVELLES

MUSIKAGILEAK

 Pág. 49 Orr.

Urria 18 Octubre

ELUCUBRACIONES

DONATO GOYENECHÉ TRÍO

 Pág. 12 Orr.

Urria 19-20 Octubre

UN BESO

TANTTAKA TEATROA

 Pág. 32 Orr.

Urria 21 - 23 Octubre

HYBRID RYTHM & DANCE

OREKA TX

MOTOKO HYRAYAMA

EMI TOKO

 Pág. 50 Orr.

Urria 24 Octubre

150th BIRTHDAY OF ERIK SATIE

FUMIO YASUDA

JOACHIM BADENHORST

ERNST REIJSEGER

 Pág. 82 Orr.

Urria 29 Oct. – Azaroa 04 Nov.

FANTASIAZKO

ETA BELDURREZKO

ZINEMAREN 27. ASTEA

27ª SEMANA DE CINE

FANTÁSTICO Y DE TERROR

Azaroa Noviembre

 Pág. **52** Orr.

Azaroa **05** Noviembre
**MARIACHI VARGAS DE
TECALITLÁN & DONOSTIAKO
ORFEOIA**

 Pág. **14** Orr.

Azaroa **09** Noviembre
LA TABERNERA DEL PUERTO
SASIBILL LIRIKA ELKARTEA
ASOCIACIÓN LÍRICA SASIBILL

 Pág. **16** Orr.

Azaroa **11 - 12** Noviembre
INCENDIOS
MARIO GAS

 Pág. **54** Orr.

Azaroa **13** Noviembre
MICHAEL NYMAN BAND

 Pág. **56** Orr.

Azaroa **13** Noviembre
ONENAK
LAU BEHI

 Pág. **58** Orr.

Azaroa **15** Noviembre
THE RIDGE
SARAH NEUFELD

 Pág. **59** Orr.

Azaroa **16** Noviembre
**DREAMING
OF EARTHLY THINGS**
ELENA SETIEN

 Pág. **60** Orr.

Azaroa **17** Noviembre
SPARK OF LIFE
MARCIN WASILEWSKI TRIO

 Pág. **18** Orr.

Azaroa **18 - 19** Noviembre
ZERURA ERORIA
ANODINO TEATROA

 Pág. **62** Orr.

Azaroa **20** Noviembre
**BALADAS PARA UN
AUTORRETRATO**
DIEGO VASALLO

 Pág. **64** Orr.

Azaroa **22** Noviembre
DONOSTIAKO KANTAK
CORO EASO ABESBATZA
III. DONOSTIA MUSIKA ZIKLOA
III CICLO DONOSTIA MUSIKA

 Pág. **20** Orr.

Azaroa **24 - 25** Noviembre
THE NAKED CLOWN
RECIRQUEL

Azaroa **Noviembre**

 Pág. **66** Orr.

Azaroa **30** Noviembre
XABIER ANDUAGA, TENORRA
ELENA BARBÉ, SOPRANO
III. DONOSTIA MUSIKA ZIKLOA
III **CICLO DONOSTIA MUSIKA**

 Pág. **34** Orr.

Azaroa **27** Noviembre
MAITE K
AMESTÛ ELKARTEA

Abendua **Diciembre**

 Pág. **68** Orr.

Abendua **02** Diciembre
BATEK DAKI! MUSIKALA
JASO IKASTOLA

 Pág. **36** Orr.

Abendua **03** Diciembre
GAITASUNEN IRAULTZA
VERDINI DANTZA TALDEA

 Pág. **70** Orr.

Abendua **05** Diciembre
APAGA LA LUZ Y CANTAR
IBON CASAS

 Pág. **22** Orr.

Abendua **10** Diciembre
EL RETABLO
DE LAS MARAVILLAS
MORFEO TEATRO CLÁSICO

 Pág. **38** Orr.

Abendua **08** Diciembre
ATALAK XXVIII
DANTZAZ

 Pág. **72** Orr.

Abendua **13** Diciembre
THE ROAD TO FREEDOM
BARBARA HENDRICKS

 Pág. **74** Orr.

Abendua **14** Diciembre
X
JUDITH JÁUREGUI
III. DONOSTIA MUSIKA ZIKLOA
III **CICLO DONOSTIA MUSIKA**

 Pág. **40** Orr.

Abendua **16 - 17** Diciembre
CAÍDA LIBRE / FREE FALL
SHARON FRIDMAN

Urtarrila Enero

 Pág. **76** Orr.

Abendua **18** Diciembre
MENDIRA NAIZ
OSKARBI

 Pág. **77** Orr.

Abendua **23** Diciembre
ASTONAUTA
ENE KANTAK
TXIKIJAZZ KLUBA

 Pág. **78** Orr.

Abendua **26** Diciembre
GARI & MALDANBERA

 Pág. **24** Orr.

Abendua **27 - 28** Diciembre
PARIAS
JAVIER ARANDA

 Pág. **26** Orr.

Abendua **29** Diciembre
ÚLTIMO TREN A TREBLINKA
VAIVÉN PRODUCCIONES

 Pág. **80** Orr.

Urtarrila **03** Enero
EUSKAL HERRIKO
GAZTE ORKESTRA

 Pág. **81** Orr.

Urtarrila **06** Enero
RUPER ORDORIKA

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA



Antzerkia Teatro





VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Urria 06, 09 Octubre

Don Pasquale

Opus Lírica



06; 20:00, 09; 19:00 75 € / 55 € / 45 €

Italiar opera bufo handietariko azkena dugu *Don Pasquale*, Gaetano Donizettiren musika eta Donizetti beraren eta Giovanni Ruffiniren libretoarekin. Artearen komedian inspiraturiko opera dugu honakoa, egunorokotasunean oinarrituriko trama intemporal du. Mota honetako komedietan izaten diren pertsonaiei oihartzun egiten diete zuzenean lau protagonistek: agure ipurterrea, ezkontza simulatua, intriga handiko medikua eta emakumezko protagonista bizkorra. Alegia, Don Pasquale dominatzaile eta zentzugabea, Ernesto eta Norina maiteminduak eta erregidore eta intriga-iruzkingile Malatesta doktorea. Melodrama erromantikodun oinarriko parodia dugu hau, sentimendu eta emozioz beteriko eta ondo eraikitako komedia fina.

Don Pasquale es la última de las grandes óperas bufas italianas, con música de Gaetano Donizetti y libreto del propio Donizetti y de Giovanni Ruffini. La ópera está inspirada en la comedia del arte y se trata de una trama intemporal en un ambiente cotidiano. Los cuatro personajes hacen eco directamente a los presentados en esta clase de comedia: un viejo cascarrabias, una boda fingida, un intrigante doctor así como una astuta protagonista femenina. Esto es, el dominante y descabellado Don Pasquale, los enamorados Ernesto y Norina y el regidor y comentarista de las intrigas el Doctor Malatesta. Una obra paródica con trasfondo de melodrama romántico con multitud de detalles de comedia fina, bien construida y llena de sentimientos, así como de emoción.



Urria 19 - 20 Octubre

Un Beso Tanttaka Teatroa

Club, 21:00 12€ ● castellano

Lorenzok hamabost urte ditu, umezurztegia utzi eta harrera-familia batekin bizitzera joan da, Italiako hiri txiki batera. Han, Antoniorekin maiteminduko da. Antoniok sentimenduak adierazteko zailtasunak ditu, eta ez daki nola erantzun Lorenzok erakutsitako afektuari. Elena, berari falta zaion adorea ikasleei emateko gogotsu dagoen irakaslea, horren testigu izango da. Hiru pertsonaia horiek dira maitasun, gorroto eta indarkeriari buruzko obra bikain baten protagonistak. Eta erdian, musu bat, eromena eragin dezakeen musu bakar eta simple bat...

Lorenzo tiene quince años, y tras dejar el orfanato se ha ido a vivir con una familia de acogida en una pequeña ciudad italiana. Allí se enamorará de Antonio. Antonio tiene problemas para demostrar sus sentimientos y no sabe cómo reaccionar al afecto demostrado por Lorenzo. Elena, la profesora que ansía transmitir a sus alumnos el valor que le falta a ella, será testigo de todo esto. Estos tres personajes, son los protagonistas de una excelente historia de amor, odio y violencia. Y en medio, un beso, un simple beso que puede desencadenar la locura...

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Azaroa 09 Noviembre

La tabernera del puerto

Sasibill Lirika
Elkartea



20:00 35 € / 25 € / 15 € ● castellano

Sasibill Elkarte Lirikoak Pablo Sorozabalen *La Tabertera del Puerto* zarzuela ezaguna eszenaratuko du, hura Bartzelonako Tívoli antzokian estreinatu zela 80 urte bete direnean. Cantabreda hiri imaginarioko portuan gertatzen da istorioa, Marola-ren tabernan. Inork ez daki tabernaria nondik datorren, baina bai taberna Juan de Eguía bidelapurrak ordaindu zuela, Marolaren ustezko senarrak.

Bakarlariei laukote nagusia **Miren Urbieta-Vegak, Igor Peralek, Alberto Arrabalek** eta **Carlos Londonek** osatuko dute, eta haiekin arituko dira **Haizea Muñoz, Iker Casares, José Luís Segurola** eta Sasibill orkestra eta abesbatza. **Arkaitz Mendozak** zuzenduko du musika, eta **Josean García** antzezlanak.

Lírica Sasibill Ileva al escenario la popular zarzuela de Pablo Sorozábal *La Tabertera del Puerto*, en el 80º aniversario de su estreno en el Teatro Tívoli de Barcelona. La acción se desarrolla en el puerto de la ciudad imaginaria de Cantabreda donde se encuentra la taberna de Marola, de la que nadie sabe su origen, solamente, que quien costeó la taberna fue el bandido Juan de Eguía, al que todos creen su marido.

El cuarteto principal de solistas estará compuesto por **Miren Urbieta-Vega, Igor Peral, Alberto Arrabal** y **Carlos London**. Completan el reparto **Haizea Muñoz, Iker Casares, José Luís Segurola** y la Orquesta y Coro Sasibill, bajo la dirección musical de **Arkaitz Mendoza** y la dirección escénica de **Josean García**.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Azaroa 11 - 12 Noviembre

Incendios

Mario Gas





22:00 **28 € / 24 € / 10 €** ● castellano

Incendios batzuetan egin beharreko suteez eta maiz norberaren baitara iristeko ibili behar den bide izugarriaz ari da. Emakume bat hil berri da, eta gaur atea ireki die bere isiltasunari eta bere sekretuei. Oihal berdezko jantzi bat utzi die seme-alaba biekiei, koaderno gorri bat eta bi kartazal, Pandoraren bi kutxa balira bezala, nondik gaitzak eta mirariak sortzen baitira. Koadernoak eta kartazalek barruan dutenak egundoko odiseara eramango ditu, urruneko kontinente batera, iragan ezezagun batera, bigarren jaiotza batera.

Nuria Espert, Ramón Barea, Laia Marull, Edu Soto, Carlota Olcina, Alex García, Alberto Iglesias eta **Lucía Barrado** osatzen dute aktore zerrenda **Wajdi Mouawad** autore libanoarraren obra honetan, **Mario Gasen** zuzendaritzapean.

Incendios habla de fuegos que a veces hay que sembrar, del terrible camino que a menudo hace falta recorrer para llegar a uno mismo. Una mujer acaba de morir y hoy abre la puerta a su silencio y a sus secretos. Deja a sus gemelos un traje de tela verde, un cuaderno rojo y dos sobres que son como dos cajas de Pandora de las que surgen males y maravillas, y cuyo contenido les va a arrastrar a una fabulosa odisea, hacia un continente lejano, hacia un pasado desconocido, hacia un segundo nacer.

Mario Gas dirige a **Nuria Espert, Ramón Barea, Laia Marull, Edu Soto, Carlota Olcina, Alex García, Alberto Iglesias** y **Lucía Barrado** en esta obra del autor libanés **Wajdi Mouawad**.


VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Azaroa 18 - 19 Noviembre

Zerura eroria

Anodino Teatroa



Club, 21:00 12 €  euskara

Zerbait al dago hil ostean? Zerbait badago, nora goaz? Gora? Behera? Bizitutakoaren arabera erabakiko al da norabidea? Ezinbestekoa da bizitza produktiboa eramatea hildakoekin joan ahal izateko? Nola deitzen dira hilda zaudenean dituzun bizipenak? Hildakoen bizipenak? Bizi penak? Hil penak?

Bizitzaldi ez gauza bezain zozo baten ondoren, Armandok zeruan atsedean hartzea besterik ez zuen nahi. Baina kapitalismoaren atzaparkadak eta krisi ekonomikoa zeruraino iritsi dira eta ez zuen espero bere produktibitate eskasak atsedean hartzea galaraziko zionik. Sartzerik izango al du? Eta zuk, etxeko lan guztiak eginda dituzu arimen mundura bidaiatzeko?

¿Existe algo después de la muerte? Si es así, ¿a dónde vamos? ¿Arriba? ¿Abajo? ¿Se decide la dirección según lo vivido? ¿Es necesario llevar una vida productiva para poder ir con los muertos? ¿Cómo se llaman las experiencias que uno vive estando muerto? ¿Vivencias de muerte? ¿Vivencias de pena? ¿Penas de muerte?

Tras haber llevado una vida completamente sosa, Armando no desea más que descansar en el cielo. No creía que su falta de productividad le impediría descansar, pero los zarpazos del capitalismo y la crisis económica han alcanzado el edén. ¿Podrá entrar? ¿Y tú, has hecho ya todos los deberes necesarios para viajar al mundo de las almas?

Azaroa 24 - 25 Noviembre

The Naked Clown

Recirquel



ELKARRIZKETAK
CONVERSACIONES
DSS2016.EU

20:00 22 € / 18 € / 10 € Testurik gabe Sin texto

Pailazoari amaitzen ari zaio bizia. Ezezagunean sartzear da, baina azken funtzioa baino lehen erantzi beharra du, arima erabat biluzturik emateko azken urratsak. Zer dago pailazoaren mozorroaren irribarre etengabearen atzean? Produkzio honetan, aktoreek literalki eta irudimenez erantziko dute mozorroa, ikus-entzuleei barne-bidaia ez ohiko batera abiatzeko gonbita egiten dietenean, irudimenaren eremuetan barrena, non errealitatea babesten duten geruzak desagertu egiten baitira.

Ikuskizunak ezabatu egiten ditu zirkuaren, dantzaren, antzerkiaren eta musikaren arteko mugak.

La vida del payaso llega a su fin. Está a punto de entrar en lo desconocido, pero antes de que caiga el telón necesita despojarse de todo para dar sus últimos pasos con el alma desnuda. ¿Qué hay detrás de la máscara siempre sonriente del payaso? En esta producción, los actores se despojan literal y figurativamente del disfraz, cuando invitan a la audiencia a un inusual viaje interior por ámbitos imaginarios donde las barreras protectoras de la realidad desaparecen.

El espectáculo supera las fronteras existentes entre el arte circense, la danza, el teatro y la música.



VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA


Abendua 10 Diciembre

El retablo de las maravillas

Morfeo Teatro Clásico

20:00 22 € / 18 € / 10 € ● castellano

Cervantesek duela lau mende idatzi zuen *El Retablo de las maravillas* lanak satira jostagarri bat aurkezten du garai hartako Espainiako hipokresiei buruz. Herri bateko agintariek, komediantek batzuek erakusten dieten erretaula huts baten aurrean, pentsatuz magikoa dela ez dielako ezer erakusten odol garbikoak ez direnei, sasikoei, plantak egiten dituzte, ikusten ez dutena ikusiko balute bezala, frogatzeko “jatorri oneko jendea” direla. Satira itxuragabeko horrek dramatismoa hartzen du, Cervantesen kontakizunaren mikaztasuna areagotu egiten da amaiera harrigarrian. Morfeo Teatro Clásicoren produkzio bat, **Francisco Negro**k egokitu eta zuzendua, eta honako aktore hauek jokatuak: Francisco Negro bera, **Mayte Bona**, **Felipe Santiago**, **Adolfo Pastor**, **Santiago Nogués**, **Mamen Godoy** eta **Joan Llaneras**.





El Retablo de las maravillas, que escribió Cervantes hace cuatro siglos, presenta una divertida sátira sobre las hipocresías de la España de la época. Los mandatarios de un pueblo, ante un retablo vacío mostrado por unos cómicos y aparentemente mágico por no enseñar nada a sucios de sangre o bastardos, simulan ver lo que no ven para demostrar que son “gentes de bien nacer”. La disparatada sátira cobra dramatismo y se acentúa la acidez del discurso cervantino en un sorprendente final.

Una producción de Morfeo Teatro Clásico, bajo dramaturgia y dirección de **Francisco Negro**, con el propio Francisco Negro, **Mayte Bona**, **Felipe Santiago**, **Adolfo Pastor**, **Santiago Nogués**, **Mamen Godoy** y **Joan Llaneras** en el reparto.

Abendua 27 - 28 Diciembre

Parias

Javier Aranda

Club, 21:00 12 € Testurik gabe Sin texto

Parias helduei zuzendutako txotxongilo ikuskizuna da, non hunkigarri gertatzen baita txotxongiloaren eta txotxongilolariaren arteko harreman intimoa. Gizakion degradazioaren eta marjinazioaren irudi bikaina dira txotxongiloak *Parias*en; haien istorioek sortzen dituzten emozioen bidez, ikuslea jabetzen da oraindik bizirik dagoela eta irizpide moralak dituela. Ikuskizun hunkigarria da eta hausnartzeko bidea irekitzen du. Antzerki klasikoaren gaiei eta bideei lotzen zaie *Parias*, eta antzezlekuari funtzio soziala bueltatzen dio.

Parias es un espectáculo de títeres para adultos donde la relación entre el muñeco y el titiritero llega a un grado de intimidad que estremece. En *Parias* los títeres son el símbolo brillante de la degradación y la marginación del ser humano; sus historias despiertan emociones que nos hacen tomar consciencia de que aún estamos vivos y tenemos criterios morales. La obra conmueve y obliga a la reflexión, retoma temas y vías del teatro clásico y le devuelve al escenario su función social.







ELKARRIZKETAK
CONVERSACIONES
DSS2016.EU

Abendua **29** Diciembre

Último tren a Treblinka

Vaivén Producciones

20:00 12€

1942ko abuztuaren 5a, asteazkena, Varsovia.

Umezurztegi bat, 200 haur judutarren bizilekua. Janusz Kòrczak mediku eta pedagogoak, hango buru zelarik, haur-errepublika zinezko bat sortu zuen bere laguntzaile min Stefania Wilzynskarekin batera. Hurrekin eskuz esku jardunez, konstituzio bat sortu zuen, bere lege, araudiekin, bai eta bere zigor-kodearekin ere. Ikus-entzuleek parte hartuko dute horretan, beren ohe-literetan egongo baitira umezurztegitik alde egin behar duten azken egunean, Treblinkako kontzentrazio-esparrura eramango dituen trena hartu aurretik.

Miércoles 5 de agosto de 1942, Varsovia.

Un orfanato con 200 niños judíos. Liderado por el doctor y pedagogo Janusz Kòrczak, junto con su inseparable colaboradora Stefania Wilczynska, formó allí una verdadera república infantil. Trabajando mano a mano con los niños creó una constitución con sus leyes, reglamentos y también un código penal. Los espectadores serán parte de ellos, ya que estarán aposentados en sus camas-litera, el día que deben abandonar el orfanato y dirigirse al tren que les llevará al campo de concentración de Treblinka.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

 **Dantza**





Urria 15 - 16 Octubre

Dance on: Those specks of dust & 7 dialogues

Jone San Martin

Sortzailea [Creadora](#)



ELKARRIZKETAK
CONVERSACIONES
DSS2016.EU

20:00 [24 €](#) / [18 €](#) / [10€](#)

Normalean, gorputz gazteen edertasunarekin eta birtuosismoarekin lotu ohi dugu dantza, baina hori baino askoz ere gehiago da. *Dance On*ek dantzari eskarmentatuen bidez erakutsi nahi du dantzaren artearen edertasuna. Ikuskizuneko kideen inteligentzia fisikoa, konfiantza eta adierazkortasuna denborari eta eskarmentuari esker bakarrik lor daitezke.

*Dance On*ek aukera ematen digu Donostian *Those specks to dust* eta *7 dialogues* ikuskizunez gozatzeko. Biek batzen dituzte dantza eta performancea.

Estamos acostumbrados a relacionar la danza con la belleza y el virtuosismo de un cuerpo joven, pero la danza es mucho más que eso. *Dance On* tiene como objetivo demostrar lo hermoso del arte de la danza a través de bailarines experimentados. Los miembros de *Dance On*, cuentan con la inteligencia física, la confianza y la expresividad que solamente el tiempo y la experiencia aporta al bailarín.

Ellos, *Dance On*, nos ofrecen la oportunidad de disfrutar en Donostia de *Those specks to dust* y *7 dialogues*, espectáculos que unen danza y performance.



Urria 21 - 23 Octubre

Hybrid Rythm & Dance

Oreka TX

Motoko Hyrayama

Emi Toko



ELKARRIZKETAK
CONVERSACIONES
DSS2016.EU

21 - 22, 20:00; 23, 19:30 24 € / 18 € / 10 €

Motoko Hyrayama dantza garaikideko koreografo eta dantzari ospetsuak *Hybrid* ikuskizuna aurkeztuko du **Oreka Tx** eta Ainu etniako **Emi Toko** abeslariarekin batera.

Tokioko New National Theatren estreinatutako ikuskizun honetan, dantzaren jatorriaren eta txalapartaren bidez sortutako erritmoen arteko esplorazio eta esperimentazioaren emaitza eskainiko dute.

La renombrada bailarina de danza contemporánea y coreógrafa japonesa **Motoko Hyrayama**, presenta, junto a **Oreka TX** y la cantante de la etnia Ainu, **Emi Toko**, el espectáculo *Hybrid*.

Estrenado en el New National Theatre de Tokio, en este genuino espectáculo ofrecerán el resultado de la exploración y experimentación entre las raíces de la danza y los ritmos creados a través de la txalaparta.



VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Azaroa 27 Noviembre

Maite K

Amestü

Elkartea



20:00 10 €

Ohiturek gogor lotzen dituzten beste gizarte asko bezala, euskal gizartea ere misoginiuz salatu izan dute. Egia da gure historiografiak “gizon handiak” goraipatu izan dituela (itsasgizonak, apaizak, jakintsuak, kirolariak...), eta alde batera utzi dituela sarri emakumeak. Kanten, irudien eta dantzen bitartez, ikuskizun honek bidaia bat proposatzen du, denboraren mugak zeharkatu eta emakumearen balio unibertsalak azpimarratzeko eta gure herria osatzen duen “emakume apal” bakoitzaren ibilbide, nolakotasun eta indar berezia aldarrikatzeko.

Al igual que otras muchas sociedades fuertemente atadas por las costumbres, la sociedad vasca también ha sido tachada de misógina. Es cierto que nuestra historiografía ha ensalzado a “grandes hombres” (marineros, clérigos, sabios, deportistas...), obviando frecuentemente a las mujeres. A través de canciones, imágenes y danzas, este espectáculo propone un viaje que atravesará los límites del tiempo, remarcando los valores universales de la mujer y reivindicando las trayectorias, cualidades y especial fuerza de cada una de las “mujeres humildes” que forman parte de nuestro pueblo.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Abendua 03 Diciembre

Gaitasunen iraultza

Verdini Dantza
Taldea



20:30 12 € / 9€ / 7€

Gizakiaren historian, aurrerapenak eta lorpen handiak iraultza txiki zein handien ondorioz etorri dira: lehen sua piztu zuen gizakitik hasita, gaur egungo aro digitaleraino. Verdini Dantza Taldeak, dibertsitate funtzionala duten pertsonenganako konpromisoz, erronka berria proposatzen dizue, eta, horretarako, harro jasotzen du iraultza txiki-handi baten bandera: gaitasunen iraultzarena. Iraultza horren bidez, aukera amaigabeen mundu bat sortu nahi du, askotariko gaitasunez osatua, gaitasun horiek guztiak garatzearen garrantzia aldarrikatu ahal izateko, bai norberaren onurarako, bai gizartearenerako ere. Hori dela-eta, Verdini Dantza Taldea prest dago “gaitasunen iraultza” txiki-handiaren buru izateko, eta hala adieraziko du, ozen eta argi, *Gaitasunen iraultza* ikuskizunean.

En la historia de la humanidad los avances y los grandes logros han sido fruto fruto de, unas veces grandes, y otras veces pequeñas, revoluciones. Desde el ser humano que encendió el primer fuego, hasta la era actual, la era digital. Verdini Dantza Taldea, desde su compromiso con las personas con diversidad funcional, propone un nuevo desafío y para ello enarbola con orgullo la bandera de una pequeña-gran revolución, la de las capacidades, encaminada a crear un mundo de infinitas posibilidades compuesto por capacidades diversas, y desde donde quiere reivindicar el desarrollo de todas y cada una de ellas, tanto para beneficio personal como para el del conjunto de la sociedad. Verdini Dantza Taldea se atreve a liderar esta pequeña-gran “revolución de las capacidades” y así lo expresa alto y claro en *Gaitasunen iraultza*.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Abendua 08 Diciembre

Atalak XXVIII

Dantzaz

Club, 21:00 12 €

Atalak-en edizio berri honetan, Euskal Herriko bi koreograforen sormen lanak ikusgai izango ditugu Club Aretoan: **Vicky Miranda** eta **Gilles Schoenberg**. Dantzazeko 12 dantzariak erabiliko dituzte bi sorkuntzak egiteko, bereziki prestatuta Victoria Eugenia Club aretorako publiko fidelarentzako.

En esta nueva edición de Atalak, podremos disfrutar de dos nuevas creaciones de dos coreógrafos de Euskal Herria: **Vicky Miranda** y **Gilles Schoenberg**. Utilizarán a los 12 bailarines de Dantzaz para realizar dos creaciones, que se presentarán especialmente en la sala Club del Victoria Eugenia para el público fiel.



Abendua 16 - 17 Diciembre

Caída libre

Free Fall

Sharon Fridman

20:00 24 € / 18 € / 10 €

Sharon Fridman konpainia dantza garaikideko talde bat da, 2007an eratu eta egoitza Madrilen duena. *Contact* delakoa da ardatz nagusia konpainiaren bilaketan. Filosofia existenzial horrek bestearekiko, materiarekiko eta elementuekiko harreman kontzientea eskatzen du. Higidura naturala da taldearen konposizio guztietako lehengaia. Interpretarearen esperientzia subjektiboa, hots, bere gatazkaren bizipena, da, gainera, sorkuntzarako abiapuntua.

Caída libre / *Free fall* 2014ko maiatzean estreinatu zen, eta Dantza Ikuskizunik Onenaren Max saria irabazi zuen 2015ean. Konpainiak bere arte-ildoan sendotu du obra horren bidez.



Compañía Sharon Fridman es un grupo de danza contemporánea formado en 2007 y afincado en Madrid. El *contact* es la piedra angular en la búsqueda de la compañía, filosofía existencial que implica una consciente relación con el otro, con la materia y los elementos. El movimiento natural es la materia prima de todas sus composiciones. La experiencia subjetiva del intérprete, la vivencia de su particular conflicto, es además el punto de partida de la creación.

Estrenada en mayo 2014 en Turín y ganadora del Premio Max 2015 al Mejor Espectáculo de Danza, *Caída libre / Free fall* supone la consolidación de la línea artística de la Compañía.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Musika





Urria 10 Octubre

Luis Fernández

Klarinetea

Carlos Apellániz

Pianoa

VII. Musikagileak Musika Garaikidearen Zirkuitua

VII Circuito de Música Contemporánea Musikagileak

Club, 20:00 3 € Laguntzailea [En colaboración con: Musikagileak](#)

Luis Fernández klarinete-jotzaileak eta Carlos Apellániz piano-jotzaileak eratutako bikoteak era askotako piezak eskainiko dituzte; besteak beste, Musikagileak-eko konpositoreen lanak, hala nola, Hilario Extremiana, Isabel Urrutia, Maria Eugenia Luc, Pascal Gaigne eta Francisco Ibañezenak; Jose María Sánchez Verdú cadiztarraren eta Voro García valentziarraren lanekin jardungo dute solasean, bai eta Carmelo Bernaolak klarinete eta pianoarentzat konposatutako *Tres piezas* ospetsuekin ere.

El dúo formado por el clarinetista Luis Fernández y el pianista Carlos Apellániz ofrecerá un programa con un repertorio muy variado, que incluirá obras de compositores de Musikagileak como Hilario Extremiana, Isabel Urrutia, María Eugenia Luc, Pascal Gaigne y Francisco Ibáñez, que dialogarán con creaciones del gaditano José María Sánchez Verdú, el valenciano Voro García, y también con las célebres *Tres Piezas* para clarinete y piano de Carmelo Bernaola.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA



Urria 12 Octubre

La llamada

Ismael Serrano

20:00 30€ / 25€ Laguntzailea En colaboración con: Syntorama

Espainiako eta Latinoamerikako zenbait herrialdetako salmentetan lehen postua lortu eta gero, Ismael Serrano amaitzera doa azken lanari izena eman dion bira: *La llamada*, non betiko arrakastek ere beren lekua baitute.

Hamahiru abestik osatutako *La llamada* lanean borroka ospakizun bihurtzen da, desamodioa kandonbearen erritmoz sendatzen, eta etsipena hartuta dagoenaren epika itxaropenez betetako bonbo-kolpez erretratzen.

Tras alcanzar el número uno en ventas en España y varios países de Latinoamérica, Ismael Serrano finaliza en España la gira que da título a su último trabajo: *La llamada*, en la que también están presentes sus éxitos de siempre.

La llamada son 13 canciones en las que la lucha adquiere carácter de celebración, el desamor se cura al ritmo del candombe y se retrata la épica del desahuciado a golpe de bombo lleno de esperanza.

Urria 17 Octubre

Pierrot Rewrite

Musiques Nouvelles

VII. Musikagileak Musika Garaikidearen Zirkuitua

VII Circuito de Música Contemporánea Musikagileak

Club, 20:00 3€ Laguntzailea [En colaboración con: Musikagileak](#)

Mons-eko (Belgika) Musiques Nouvelles ensembleak proiektu bati ekin zion: 25 konpositoreri beste hainbeste pieza labor sortzeko eskatu zien, Albert Giraud autore sinbolista belgikarraren *Pierrot lunaire* bildumako poemei buruzkoak. *Pierrot Rewrite* Europako Kultura Hiriburua batean aurkezten da aldioro, eta bertako konpositoreen hiru pieza berri ere sartzen ditu programan; oraingo honetan, Mikel Chamizo, Hilario Extremiana eta Guillermo Lauzuricaren lanak.

El ensemble Musiques Nouvelles de Mons (Bélgica) emprendió una iniciativa que consiste en proponer a 25 compositores la creación de otras tantas piezas breves sobre poemas de la colección *Pierrot lunaire* del autor simbolista belga Albert Giraud. *Pierrot Rewrite* se presenta, en cada ocasión, en una Capital Cultural Europea, incluyendo 3 nuevas obras de compositores locales, y en esta ocasión acogerá obras de Mikel Chamizo, Hilario Extremiana y Guillermo Lauzurica.

Urria **18** Octubre

Elucubraciones

Donato Goyeneche Trío

Club, 20:00 8 €

Donato Goyenechek jotako perkusio-tresna exotikoen soinua entzungo dugu, Elisabeth Trechslin-en gitarrarekin, María José Burguillos-en ahotsarekin eta Javier Garayalderen saxoarekin eta klarinetarekin nahastuta. Soinu ederrak, denak ere, tresna hauenak: Bell ó Hang-a, Udua (nigeriar jatorrikoa) edo Mbira (Hegoafrikako tresna); eta gainera, bongoak, kongak, kaxoi flamenkoa...

Escucharemos el sonido de exóticos instrumentos de percusión interpretados por Donato Goyeneche, mezclados con la guitarra de Elisabeth Trechslin, la voz de María José Burguillos y con Javier Garayalde al saxo y al clarinete. El Bell ó Hang con sus bellas sonoridades, el Udu (originario de Nigeria) así como la Mbira, instrumento de Sudáfrica; además de los bongos, las congas, el cajón flamenco...

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Urria 24 Octubre

150th Birthday of Erik Satie

Fumio Yasuda

Joachim Badenhorst

Ernst Reijseger





Club, 20:00 18 €

Fumio Yasuda japoniar konpositoreak Erik Satiek hirukote batentzat idatziriko musika birkonposatu du. Yasudak berak (pianoa), Joachim Badenhörst (klarinetea, saxofoia) eta Ernst Reijsegerek (biolontxelo, ahotsa) joko dute.

Emankizun honetan, elkarrizketa bat dago musikaren eta irudien artean. Izan ere, *Entr'acte* filma (1924) da osagaietako bat, Erik Satiek –minimalismoaren eta inpresionismoaren aitzindari hark– musika jarri baitzion filmari. Erik Satieren jaiotzaren 150. urteurrena ospatzen da aurten.

El compositor japonés Fumio Yasuda recompone la música de Erik Satie para trio que interpretan el propio Yasuda (piano), Joachim Badenhörst (clarinete, saxofón) y Ernst Reijseger (cello, voz).

Entr'acte (1924), la película para la que Erik Satie, precursor del minimalismo y el impresionismo compuso la música, es parte del espectáculo en el que se entabla un dialogo entre música e imágenes. Se celebra el 150 aniversario del nacimiento de Erik Satie.

Azaroa 05 Noviembre

Mariachi Vargas de Tecalitlán & Donostiako Orfeoia Kursaal



ELKARRIZKETAK
CONVERSACIONES
DSS2016.EU



Secretaría General
Iberoamericana

Secretaría-Geral
Ibero-Americana

20:00 28€

Donostiako Orfeoia bezala, 1897an sortu zen Tecalitlango Vargas Mariachia ere, mariachiaren historiako talderik adierazgarriena eta, adituen iritziz, munduko onena.

Lehen aldia da Mariachia Euskal Herrira datorrena, eta, Donostiako Orfeoiarekin batera, kontzertu berritzaile eta aurrekaririk gabeta eskainiko du, Mexikoko eta Euskal Herriko musikak batuta.

Creado al igual que el Orfeón Donostiarra en 1897, el Mariachi Vargas de Tecalitlán es conocido como el mejor del mundo y el más representativo de la historia del mariachi.

Es la primera vez que el Mariachi Vargas de Tecalitlán se presenta en el País Vasco y junto al Orfeón Donostiarra ofrecerá un concierto innovador e inédito en el que fusionarán música mejicana y vasca.



Azaroa 13 Noviembre

Michael Nyman Band

Kursaal



ELKARRIZKETAK
CONVERSACIONES
DSS2016.EU

19:00 30€

Britainiar konpositore berritzaile eta ospetsuenetako bat da Michael Nyman; haren lanetan, operak, hari-laukoteak, soinu-bandak eta orkestra-kontzertuak aurkitu daitezke. Konpositore hutsa baino askoz gehiago da: interpretea, zuzendaria, piano-jotzailea, idazlea, musikologoa, argazkilaria eta zinegilea ere bai. “Errenazimentuko gizontzat” ere hartu izan dute, eta sormen-irrikak eta arte-balioaniztasunak gure garaiko kultura-ikono liluragarri eta eraginkorrenetako bat bihurtu dute. Oraingo honetan, Michael Nyman Band osoa lagun duela, bere ibilbideko pieza hautatu batzuk joko ditu.

Michael Nyman es uno de los compositores británicos más innovadores y reconocidos cuyo trabajo abarca óperas, cuartetos de cuerda, bandas sonoras y conciertos orquestales. Mucho más que un mero compositor, es además, intérprete, director, pianista, escritor, musicólogo, fotógrafo y cineasta. Considerado como un “hombre del renacimiento”, su inquietud creativa y su polivalencia artística le han convertido en uno de los iconos culturales más fascinantes e influyentes de nuestro tiempo. En esta ocasión, acompañado por la Michael Nyman Band al completo, interpretará una selección de toda su carrera.





Azaroa 13 Noviembre

Onenak Lau Behi

19:00 15 €

Lau Behi Donostian 90eko. hamarkadan sortu zen talderik esanguratsuenetako bat izan zen. Euskaraz abestutako blues eta rock estiloetan oinarriturik, Mikel Azpirozek (ahotsa, gitarra, teklatuak), Alberto Boschek (ahotsa, baxua), Txenan Calvok (gitarra), eta Juanra Etxaburuak (bateria) osatu zuten taldea. 1994 eta 2000 urteen artean, lau disko grabatu zituzten. Aurten, disko haietatik hautatutako abestiekin *Onenak* bilduma argitaratuko dute, grabatu berri dituzten bi abesti berriekin batera. Argitaratze hori ospatzeko, jatorrizko lau taldekideak elkartuko dira disko berri honen aurkezpen kontzertu bakar hau eskaintzeko.

Lau Behi fue uno de los grupos más significativos que dio la escena musical de Donostia en los años 90. El grupo lo componían Mikel Azpiroz (voz, guitarra, teclados), Alberto Bosch (voz, bajo), Txenan Calvo (guitarra), Juanra Etxaburu (batería) y su música se asentaba sobre el blues y el rock cantada en euskera. Entre el año 1994 y 2000 publicaron cuatro discos, y ahora editan *Onenak*, una selección de temas de aquellos trabajos, más dos nuevas canciones que han grabado recientemente. Con motivo de esta publicación, los miembros originales de la banda se reunirán para ofrecer este único concierto de presentación del disco.

Azaroa 15 noviembre

The Ridge

Sarah Neufeld



ELKARRIZKETAK
CONVERSACIONES
DSS2016.EU

Club, 20:00 18 €

Sara Neufeldek minimalismo popean egindako saioaren lagin bat da *The Ridge*.

Biolina jotzeko duen estilo paregabea da erdigunea oraingoan ere, baina, gainera, ahots aberats eta adierazkorrek eta bateriaren eta sintetizadoreen ekarpenek entzun-eremu kitzikagarri eta dinamikoa sortzen dute.

Stefan Schneider bateria eta beste hainbat tresna jotzen dituen kolaboratzaile aspaldikoa lagun duela, Neufeldek egiten duen *The Ridgeren* zuzeneko interpretazioak esperientzia barnekoa, hedagarria eta liluragarria eskaintzen die musikaren maitaleei.

The Ridge es una muestra de la incursión de Sara Neufelden el minimalismo pop.

Su estilo violinístico sin par sigue siendo central, mientras ricas y expresivas voces y la inclusión de tambores y sintetizadores crean un campo auditivo incitante y dinámico.

Secundada por su habitual colaborador, el batería Stefan Schneider, su interpretación en vivo y en directo de *The Ridge* constituye una experiencia íntima, expansiva y cautivadora para los amantes de la música.

Azaroa **16** Noviembre

Dreaming of Earthly Things

Elena Setien

Club, 20:00 10 €

19 urtez atzerrian batetik bestera ibili ondoren, Elena Setien kantari eta sortzailea Donostiara itzuli da, bertan geratzeko. Azken lan diskografikoa Mikel Azpiroz musikari polifazetikoarekin batera ekoitzi du. Diskoan, Elenak Wurlitzer pianoaren, Moog sintetizadorearen eta Hammond organoaren soinu-aukerak arakutzen ditu bere kantetan. Tresnen tremoloa eta reverb-a ahotsarekin batera erabilia, Elenak, Mikelek eta Karlos Aranzegi bateriak amets-giro betean sartzen gaituzte, eta soinu-zuko ingurune sakon batean biltzen.

Después de 19 años de periplos por el extranjero, la cantante y creadora Elena Setien ha vuelto a Donostia para quedarse. En su nuevo trabajo discográfico, co-producido con el polifacético músico Mikel Azpiroz, Elena explora las posibilidades sonoras del piano Wurlitzer, el sintetizador Moog y el órgano Hammond en sus canciones. Con el trémolo y la reverb de los instrumentos y la voz, Elena, Mikel y el batería Karlos Aranzegi, nos trasladan a un ambiente de ensoñación, muy evocador, que nos envuelve en un espacio sonoro con profundidad.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Azaroa 17 Noviembre

Spark of Life

Marcin Wasilewski Trio





ELKARRIZKETAK
CONVERSACIONES
DSS2016.EU

Club, 20:00 12 €

Hirukotearen *Spark of life* album berrian, gonbidatu berezi bat gehitu zaie, Joakim Milder suediar saxo-jotzaile lirikoa. Besteak beste, Krzysztof Komedaren musikarekiko zaletasunak batzen ditu musikari hauek, eta Komedak Polanskiren *Rosemary's Baby* filmerako idatzitako *Sleep Safe and Warm* temak bere lekua izango du oraingoan ere. Beti bezala, Wasilewskiren taldeak material originala dakar –Marcinek jotako ahaire biziki melodikoak (tartean, soinu-banda ederraren bi bariazio)–, baina bertsio sorta ausart batekin konbinatuta, eta hor sartzen dira Herbie Hancock, Police taldearen *Message in a Bottle* eta Slawomir Kurkiewicz-ek Grazyna Bacewica-en konposizio bati egindako moldaketa; eta hartara, berretsi eta indartu egiten da jazz-munduan den talderik baliabidez hornituenaren ospea.

Spark of life, el nuevo álbum del trío, incluye a un invitado especial, el lírico saxo sueco Joakim Milder. Entre otras afinidades, los intérpretes comparten su amor por la música de Krzysztof Komeda, de modo que el tema *Sleep Safe and Warm*, escrito por Komeda para el film *Rosemary's Baby* de Polansky, tendrá su espacio en esta ocasión. Como siempre, el grupo de Wasilewski combina material original -partes intensamente melódicas interpretadas por Marcin (incluyendo dos variaciones de la banda sonora)- con una atrevida serie de versiones que abarcan a Herbie Hancock, *Message in a Bottle* de Police y el arreglo de Slawomir Kurkiewicz sobre un tema compuesto por Grazyna Bacewicz, al tiempo que refuerza su status como uno de los grupos con más recursos en el panorama jazzístico.

Azaroa 20 Noviembre

Baladas para un autorretrato

Diego Vasallo

Club, 19:00 18 €

Diego Vasallok *Baladas para un autorretrato* aurkeztuko du. Zortzi kantuz osatutako disko berriari buruz hauxe dio Vasallok: “Nire egunetan zehar egindako bidaia bat dira, nire atzealdeko patioetara egindako begirada bat; kontzientziaren eta oroimenaren, afektuen eta ahazturen hutsarteen eremu basotsuetara; maiz behelaino lodi batek estalitako lurraldeak dira horiek denak, bihotz izoztu bat puskatzeko moduko zurtasuna duen behelaino batek”.

Diego Vasallo presenta *Baladas para un autorretrato*, un disco de 8 canciones que el cantautor define como “un viaje por los alrededores de mis días, una mirada a mis patios traseros, hacia las regiones boscosas de las cavidades de la conciencia y la memoria, de los afectos y los olvidos; territorios a menudo sepultados por una espesa niebla, de una blancura que podría partir un corazón helado”.





Azaroa 22 Noviembre

Donostiako kantak

Coro Easo Abesbatza

III. Donostia Musika Zikloa
III Ciclo Donostia Musika

20:00 12 € Laguntzailea En colaboración con: **Donostia Musika**

Donostiako eta Euskal Herriko kanten emanaldia izango da Victoria Eugeniakoa. Easo Abesbatzak 75 urteetan ez du etenik izan, izaera amateurra mantenduz eta, egun, erakunde sendotua da, lan handia eginez musika arloko eta arlo koraleko trebakuntzan.

Easo Abesbatzak barnean hartzen ditu mota askotako kantu korala interpretatzen duten koru ezberdinak.

Canciones donostiarras y vascas componen el programa de este concierto. Después de 75 años de actividad sin interrupción, manteniendo siempre su condición amateur, el Coro Easo hoy en día es un coro consolidado y con una amplia actividad en el campo de la formación musical y coral. Tiene gran prestigio como un conjunto de coros que interpretan muy diversos géneros de canto coral.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Azaroa 30 Noviembre

Xabier Anduaga, tenorra Elena Barbé, sopranoa

III. Donostia Musika Zikloa

III Ciclo Donostia Musika



Club, 20:00 10 € Laguntzailea **En colaboración con: Donostia Musika**

Beste batzuren artean, Donizetti eta Bizet konpositoreen lanak eskainiko dituzte abeslari donostiarrek. Xabier Anduaga Musikeneko ikaslea da gaur egun. Martxoan, bigarren saria jaso zuen munduko 52 abeslari bildu zituen Concurso Internacional de Canto Ciudad de Logroño leihaketan. Horrez gain, artista berriaren saria ere jaso zuen.

Elena Barbé, berriz, 14 urte baino ez zituela hasi zen bakarlari Donostiako Orfeoian. Musikeneko ikasketak nota hoberekin amaitu zituen. Gaur egun Veronako Jacopo Foroni Akademian ikasten ari da eta azkeneko urtetan, I. Cotrubas, J. Aragall, M. Bayo, I. Cserjan, I. Rey, O. Sala, R. Levitt, E. Ricci, N. Pikulsky eta M. Caballéren klase magistralak jaso ditu.

Estos dos jóvenes intérpretes donostiarras ofrecen en esta ocasión obras de Donizetti y Bizet, entre otras. Alumno de Musikene, Xabier Anduaga ha conseguido el segundo premio en el Concurso Internacional de Canto Ciudad de Logroño, en el que han participado 52 concursantes de todo el mundo. Ha sido además, premio al intérprete revelación.

Solista del Orfeón Donostiarra con tan solo 14 años, Elena Barbé culminó sus estudios en Musikene con las mejores calificaciones. Actualmente amplía su formación en la Academia Jacopo Foroni de Verona. A lo largo de todos estos años ha enriquecido su formación con clases magistrales de I. Cotrubas, J. Aragall, M. Bayo, I. Cserjan, I. Rey, O. Sala, R. Levitt, E. Ricci, N. Pikulsky y M. Caballé.

Abendua 02 Diciembre

Batek daki! Musikala

Jaso Ikastola

19:00 10 € Laguntzailea [En colaboración con: Jaso Ikastola](#)

Koldo hil dute. Nork, non, zergatik, noiz eta nola? Batek daki! Bere bizitzako azkeneko egunetako gertakizunetan sakontzen du Jaso Ikastolak egindako 4. musikal honek. Istorioa oso modu berezian kontatuta dago, publikoak erabakiko baititu istorioaren nondik norakoak.

Koldo ha sido asesinado. ¿Quién, dónde, por qué, cuándo y cómo? ¡Quién sabe! Este último musical de la ikastola Jaso profundiza en los últimos 2 días de vida del protagonista mediante una historia contada de modo muy especial ya que será el público quien elija el devenir de la representación.



Abendua 05 Diciembre

Apaga la luz y cantar

Ibon Casas

20:00 35 € / 25 € / 18 € Antolatzailea Organiza: **Asociación dameTVisión**

Miguel Ríos, Barón Rojo taldeko Sherpa kide ohia, Mareako abeslari Kutxi Romero eta Juan Jose Ocón zuzendari duen Donostiako Musika eta Dantza Eskolako Big Bandek lagunduko dute ikuskizun honetan Ibon Casas rockero donostiarra, zeinak retinosis pigmentario izeneko gaitza duena.

Apaga la luz y verásen bertsio berri bat interpretatuko dute artista guztiek gala honen amaieran, zeina dameTVisión irabazi asmorik gabeko elkartearen alde egingo baita. Ibon Casas da elkarte horren lehendakaria.

Miguel Ríos, el ex Barón Rojo Sherpa, el cantante de Marea Kutxi Romero y la Big Band de la Escuela Municipal de Música y danza, entre otros, acompañan en este espectáculo al rockero donostiarra Ibon Casas, afectado por retinosis pigmentaria.

Una nueva versión de *Apaga la luz y verás*, interpretada por todos los artistas se escuchará al final de esta gala a beneficio de la asociación sin ánimo de lucro dameTVisión que preside el propio Ibon Casas.





Abendua 13 Diciembre

The Road to Freedom

Barbara Hendricks

20:00 38 €

Barbara Hendricks-ek Blues, Gospel eta Negro Espiritualen programa bat aurkeztuko du. Hala, bere musika hunkigarriaren bidez, esklaboek askatasuna lortzeko egindako borroka, arraza-segregazioaren amaiera eta Rosa Parks-ek inspiratu eta Martin Luther King-ek gidatutako Eskubide Zibilen aldeko Mugimendua gogoraraziko ditu.

Down in Mississippi, Dark was the Night, Glory Halleluja, Strange Fruit, Amazing Grace, eta I Wish I knew how it would feel to be free kantatuko ditu, besteak beste.

Barbara Hendricks, presenta un programa de Blues, Gospel y Espirituales Negros describiendo a través de su emotiva música la lucha de los esclavos por la libertad, el fin de la segregación racial y el Movimiento por los Derechos Civiles inspirado por Rosa Parks y liderado por Martin Luther King. *Down in Mississippi, Dark was the Night, Glory Halleluja, Strange Fruit, Amazing Grace, y I Wish I knew how it would feel to be free* entre otros temas componen el programa.

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Abendua 14 Diciembre

X

Judith Jáuregui

III. Donostia Musika Zikloa

III Ciclo Donostia Musika



20:00 18 € Laguntzailea **En colaboración con: Donostia Musika**

X da edozein esperientzia edo aurkikuntzatan argitu nahi izaten dugun ezezaguna. Debekatua da, ezagutza heldu bat, egunerokoan datzana eta, ohartzen ez bagara ere, beharrezko duguna arnasten jarraitzeko.

Xekin, Judith Jáuregui Scriabinen extasian murgiltzen da, haren unibertso mistiko eta misterioitsu, esoteriko eta bertutetsuan, eta, hala, eldarnioak zeraman jenio baten obran zehar egindako bidaia batera gonbidatzen gaitu. Gizakiona eta jainkoena bereizten dituen kristal fin hori hausten saiatu zen jenioaren obran. Haren irudia testuinguruan jartzeko, haren inspirazio handietako bat aukeratu du, Chopinen lirismoa, eta hark utzi ziguna, haren arte ametsezkoak XX. mendean utzitako oinatz sakon hori, Szymanovski-ren lehen lanetan ikus daitekeenez.

X es la incógnita que buscamos despejar en cualquier experiencia de descubrimiento. Es lo prohibido, un conocimiento adulto que subyace en lo cotidiano y que, inconscientemente, necesitamos para seguir respirando.

Con X Judith Jáuregui se sumerge en el éxtasis de Scriabin, en su universo místico y misterioso, esotérico y virtuoso, invitándonos a un viaje por la obra de un genio arrebatado por el delirio que buscó romper ese fino cristal que separa lo humano de lo divino. Para enmarcar su figura, Jáuregui apuesta por una de sus grandes inspiraciones, el lirismo de Chopin, y por su legado, por esa profunda huella que dejó su arte visionario en el siglo XX, como puede descubrirse en los primeros opus de Szymanovski.

Abendua 18 Diciembre

Mendira naiz

Oskarbi

19:00 12 €

Mendira naiz Oskarbi taldearen hamaikagarren diskoa da.

1966. urteko azaroan eman zituen lehen pausuak musika talde honek. Victoria Eugeniako kontzertuaren lehen partean, 50 urte hauetako ibilbidearen kantu esanguratsuenen errepaso egingo du taldeak eta bigarreanean, berriz, *Mendira naiz* disko berriaren kantak entzungo ditugu.

Mendira naiz es el undécimo disco de Oskarbi.

En este concierto del Victoria Eugenia, el grupo creado en noviembre de 1966 repasará en la primera parte sus canciones más emblemáticas de estos 50 años. La segunda parte del concierto será para presentar las nuevas creaciones de *Mendira naiz*.

Abendua **23** Diciembre

Astonauta Ene kantak Txikijazz Kluba

16:30 8 €

Lur planetan barrabaskeri asko daude: kutsadura, kontzertinak, gerrak... Gure lagunek zerbait egin nahi dute mundua hobetzeko eta liburu magikoaren bitartez, irria hedatuz eta abestiekin dantzatzuz, ilargira doaz konponbide baten bila. Bertan asto bat aurkituko dute eta hasieran beldurra sortaraziko dien estralurtar bat ere bai. Astoak magia egiten du eta Enekorri eta Nereari lagundu nahi die. Lortuko al dute mundu goibel honi laguntzea?

El planeta tierra está lleno de barbaridades: concertinas, polución, guerras,... Nuestros amigos quieren mejorar este mundo y con ayuda del inseparable libro mágico, bailando, cantando y repartiendo alegría, se dirigen a la luna en busca de soluciones. Allí encuentran un burro y también un marciano que al principio les da mucho miedo. El burro hace magia y quiere ayudar a Eneko y a Nerea. ¿Conseguirán ayudar a este triste mundo?

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Abendua 26 Diciembre

Gari & Maldanbera



20:00 18 €

Gariren egitasmo berriaren zuzeneko aurkezpen honetan, urtetan jasotako esperientziaren ondorioa ikusiko da. Urte mordoa eman baitu Garik formatu ezberdinetan bere lanak aurkezten eta, oraingo honetan, Maldanbera deritzan talde klasikoarekin agertuko da eszenara (bateria, baxua, gitarrak), inoiz baino kantu gozoagoak eskeiniz, aurretik bizi izandako guztiak aurrera jarraitzeko kemena emango balio bezala.

Presentación en directo del nuevo proyecto de Gari.

Después de varios años explorando los límites del formato dúo, Gari ha comenzado una nueva experiencia con Maldanbera, una formación clásica de batería, bajo y guitarra. Una formación que le permite tanto recuperar la esencia rock de sus canciones, como construir nuevas melodías de una manera más rodada. La experiencia acumulada a sus espaldas le sirve para seguir hacia delante con más ímpetu, disfrutando de cada momento.

Urtarrila 03 Enero

Euskal Herriko Gazte Orkestra

20:00 10 €

Zuzendaria **Director: Juan José Ocón**

Laguntzailea **En colaboración con: Euskal Herriko Gazte Orkestra**

Euskal Herriko instrumentista gazteei orkestra-prestakuntza emateko tresna izateko asmoz sortu zen Euskal Herriko Gazte Orkestra. Orkestra-prestakuntzarik onena ematea, instrumentista gazteen arte eta giza garapena sustatzeko egitura sendo bat sortzea, eta arlo profesionalean sartzeko arte maila handiko bidea izatea ditu helburu.

La Joven Orquesta de Euskal Herria tiene como objetivo servir de instrumento de formación orquestal para las y los jóvenes instrumentistas vascos. Busca conseguir una óptima formación orquestal, crear una estructura sólida para poder fomentar el desarrollo artístico y humano de jóvenes instrumentistas y servir de puente de acceso, de alto nivel artístico, al mundo profesional.

Urtarrila **06** Enero

Ruper Ordorika

20:00 **18 €**

Ruperren egitasmo berriaren zuzeneko aurkezpena.

Azken diskoetan bezala, berri ere lehen mailako musikarien laguntzarekin New Yorken grabatutako lan berriko kantuak aurkeztuko ditu Ruper Ordorikak.

Abesti zotilak bezain sakonak, bizipen ugari eta bizitza luzea izan duenaren ikuspegitik sortuak eta moldatuak, pertsonaren barruraino iristen diren kantak.

Arkaitz Miner (gitarra, mandolina, bibolina), Fernando “Lutxo” Neira (baxua, kontrabaxua) eta Hasier Oleaga (bateria) izango ditu lagun disko berriaren aurkezpen berezi honetan.

[Presentación en directo del nuevo trabajo de Ruper Ordorika.](#)

[Una vez más grabado en New York con los músicos ya habituales en sus últimos discos, ahora toca presentarlo en directo apoyado por su incondicional banda de los últimos años.](#)

[Junto a Ruper estarán Arkaitz Miner \(guitarra\), Fernando “Lutxo” Neira \(bajo\) y Hasier Oleaga \(batería\) interpretando las nuevas canciones que aparecen en este último trabajo del compositor de Oñati.](#)



Zinema



Urria 29 Octubre – Azaroa 04 Noviembre

Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren 27. Astea

27^a Semana de Cine Fantástico y de Terror

Badator beste behin ere, udazkenez, Astea, urteko fantasia eta beldurrezko film garrantzitsuenekin. Film luzeak eta laburrak, oraingo eta betidaniko izenburuak, zientzia-fikzioa eta animazioa, terrore basatiena eta urteko film irrikatuak. Programazioan Japonia beti izan dugu gure artean azken urteotan. Bada, aurren, Asteak ziklo berezi bat eskaini nahi dio fantasiatzko eta beldurrezko zinema japoniarrari, eta baita liburu bat ere. Beti bezala, erakusketek eta hainbat jarduera paralelok osatzen dute fantasiatzko eta beldurrezko zinearen urteroko festa honen egitaraua.

La Semana vuelve una vez más en otoño con las películas de género fantástico y de terror más importantes del año. Largometrajes y cortos, títulos de hoy y de siempre, ciencia ficción y animación, el terror más salvaje y los filmes más esperados. Presente a lo largo de los años en su programación, la Semana dedica este año un ciclo especial (y un libro que lo acompañará) al cine fantástico y de terror japonés contemporáneo. Como siempre, exposiciones y diversas actividades paralelas complementan la programación de esta gran fiesta anual del fantástico y el terror.

Deskontuak Descuentos

⊖ %10

%10 Donostia Kulturak antolatutako ikuskizun guztietan
[10% En todos los espectáculos organizados por Donostia Kultura](#)

Donostia Kultura Bazkideak
Socios Donostia Kultura*
Langabetuak **Personas en paro**
30 urtetik beherakoak **Menores de 30 años**
Pentsiodunak eta 65 urtetik gorakoak
Pensionistas y mayores de 65 años

Leihatilan bakarrik [Sólo en taquilla](#)

***Donostia Kulturako bazkideek** www.donostiakultura.eus/sarrerak webgunean ere lortu ahal izango dituzte kontuak.
Las/os socias/os de Donostia Kultura podrán beneficiarse de estos descuentos en la web www.donostiakultura.eus/sarrerak.

Ordu Gaztea

30 urtetik beherakoek sarrerak 3 euroan erosteko eskaintza Victoria Eugenia Antzokian eta Antzoki Zaharrean, emanaldia hasi aurreko ordu erdian.

[Entradas a 3 euros para menores de 30 años en el Teatro Victoria Eugenia y Teatro Principal, media hora antes del inicio del espectáculo.](#)

Leihatilan bakarrik [Sólo en taquilla](#)

Deskontuak eta eskaintzak ez dira bateragarriak.
Los descuentos y ofertas no son acumulables.

+ Info:
www.donostiakultura.eus/sarrerak

Sarrera salmenta

Venta de entradas

Victoria Eugeniako leihatila **Taquilla del Victoria Eugenia**

Argentinako Errepublikak / Rep. Argentina, 2
20004 Donostia / San Sebastián
Tel. 943 481 818
11:30 - 13:30 / 17:00 - 20:00

Antzoki Zaharreko leihatila **Taquilla del Teatro Principal**


Kale Nagusia / Calle Mayor, 1 - 20003
Donostia / San Sebastián
Tel. 943 481 970
11:30 - 13:30 / 17:00 - 20:00



DONOSTIAKULTURA.EUS/SARRERAK

Guneak

Zonas



AGERTOKIA **ESCENARIO**



1. Gunea:

Beheko Jarlekuak/Platea/Palkoa eta Balcoiko aurrealdea

Zona 1:

Patio de butacas / Platea / Palco y / Delantera de Balcón



2. Gunea:


Balkoia eta Mailadiko aurrealdea

Zona 2: Balcón y 1ª Delantera de Anfiteatro



3. Gunea: Mailadia

Zona 3: Anfiteatro



me ta!

=

**Kultura +
Gipuzkoa**

KULTURA

META! EGIN

Zure proiektuarekin META! egin nahi baduzu, crowdfunding-kanpaina egiten lagunduko dizugu zure proiekturako dirua lor dezazun, eta lortzen duzun euro bakoitzeko, Kultura Departamentuak beste bat jarriko du, 3.500 euroko mugarekin.

¡TÚ PUEDES HACER META!

Si tu META! es la cultura, te apoyamos para lanzar una campaña de crowdfunding y lograr fondos para tu proyecto. Y por cada euro que consigas, el Departamento de Cultura pone otro, hasta un máximo de 3.500 euros.

meta.gipuzkoa.eus

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gozteria eta
Kiroletako Departamentua



**ORAIN
KULTURA**

**FUNDACIÓN
GOTEO**



VICTORIA EUGENIA

Antzokia

www.victoriaeugenia.com